

## **ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A. - SPRI**

### **Sozietatearen izena**

Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A.

### **IFK**

A01021237

### **Izaera**

Sozietate Publikoa.

### **Kontabilitate-araubidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-araubidea**

Partida murriztaileak dituen balioespena.

### **Sorrera**

Sozietatea 1981eko irailaren 21ean eratu zen [5/1981 LEGEA, ekainaren 10ekoa, "Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua Sorrarazteaz"](#) aplikatuz, eta, haren arabera, berezko eta funtsezko xedea euskal industria sustatzea eta birmoldatzea da, eta, era berean, jarduteko lehentasunezko helburua lanpostuak sortzea eta babestea.

2011ko ekainaren 6an, sozietatearen izen-aldaketa Arabako Merkataritza Erregistroan inskribatu zen, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A. izena jarrita. Era berean, inskripzioaren egun horretan bertan, sozietatearen xedea aldatu egin zen, eta merkataritza- nahiz turismo-sektoreekin zerikusia duten sustapen-jarduerak ere barruan hartu zituen.

### **Sail-atxikipena**

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

### **JESN**

8413 Jardun ekonomikoaren arautzea eta eraginkorragoa izaten laguntzea.

### **Sozietatearen helburua**

-Enpresa-sustapenean laguntzea, azterlanak eginez eta kudeaketaren, finantzen, ekonomiaren, teknikaren alorretan nahiz enpresa-interesekoak diren beste batzuetan zerbitzuen aholkularitza emanez.

-Enpresa berrien sorrera eta lanean ari direnen hedapena sustatzea, arreta berezia jarriz garapen teknologikoan eta esportazioan.

-Enpresen arteko jarduera komunak eta lankidetzaz-esparrukoak sustatzea, horrela haien lehiakortasuna handitzen bada.

-Laguntza osagarria ematea enpresak onbideratzeko eta birmoldatzeko prozesuetan ari diren alde guztien ahaleginetan, betiere haiek bideragarritasun-baldintza objektiboak betez gero.

-Prozesu berriak, produktu berriak eta haien lotutako zerbitzuak ikertzeko eta garatzeko proiektuak sustatzea.

-Xedeak betetzearekin zerikusia duen beste edozein.

## Sailkapena kontabilitate nazionalen


EAEk kontrolatutako sozietate ez-finantzario publikoak.

### Kapital soziala

419.730.800 €

### Kapital sozialaren osaera

EAEko Administrazio Orokorra % 99,01  
Kutxabank, S.A. % 0,99



### Administrazio Kontseilua

Sozietatea Administrazio Kontseiluak zuzendu eta administratuko du. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Arantza Tapia Otaegui andrea	presidentea.
Juan Ignacio García de Motiloa Ubis jauna	presidenteordea.
Leyre Bilbao Elguezabal andrea	
Itziar Epalza Urquiaga andrea	
Alejandro López Cárcamo jauna	
Imanol Aburto Erdoiza jauna	
Leyre Bilbao Elguezabal andrea	
Juan Miguel Bilbao Garay jauna	
José Zurita Laguna jauna	
Nuria López de Guereñu Ansola andrea	
Imanol Pradales Gil jauna	
Jon Uriguen Ansola jauna	
Jesús Alberdi Areizaga jauna	
Gregorio Rojo García jauna	
Fernando Irigoyen jauna	Kutxabank, S.A.ren ordezkari moduan

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: %93,33

### 2012ko aurrekontuak

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

### 2012ko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

**SPRI banakoa:** 2012ko ekitaldiko kudeaketa-txostena eta urteko kontuen ikuskaritza-txostena, kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.

**SPRI bateratua:** 2012ko ekitaldiko bateratutako urteko kontuen ikuskaritza-txostena eta bateratutako kudeaketa-txostena.

## **2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak**

### **SPRI banakoa**

Aktiboa guztira	474.679.459 €
Ondare garbia	420.454.796 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	1.376.115 €
Batez besteko langile-kopurua	73

### **SPRI bateratua**

Aktiboa guztira	838.320.043 €
Ondare garbia	616.580.700 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	38.691.111 €
Batez besteko langile-kopurua	182

### **Sozietatearen helbidea**

Sozietateak Gasteizen du helbidea: Wellingtongo Dukearen kalea, 2.

Jarduera, berriz, hemen: Urkixo zumarkalea, 36-4. solairua (Bizkaiko Plaza eraikina)-Bilbo 48011 Bizkaia.

### **Webgunea**

[www.spri.es](http://www.spri.es)